

BERRIKUNTZA SOZIAL ERALDATZAILEA: GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO GIZARTE ZERBITZUEN GOBERNANTZARI BURUZKO AZTERKETA

Tesiaren egilea: Eusebio Lasa Altuna

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ekonomia Aplikatua 1

Tesi-zuzendaria: Mikel Zurbano Irizar eta Enekoitz Etxezarreta Etxarri

Tesiaren laburpena:

2011tik 2015era Bildu koalizioak hartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernua eta, bide batez, Gizarte Politikako Departamentua koalizio horren esku geratu zen. Testuinguru soziopolitiko horretan, gure ikerketan aztertu da ea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua, gizarte zerbitzuak antolatzerakoan, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzeko gai izan zen.

Marko teorikoaren atalean, gizarte-eraldaketa oinarritutako Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen zimenduak garatu dira, neoliberalismoaren gaurko fasea zalantzan jartzeko eta gizarteari bide berriak irekitzen joateko. Gero, Berrikuntza Sozial Eraldatzailearen terminoa ondo definitu ondoren, hausnarketa hori lurralde eremu zehatz batera eraman da. Hain zuzen ere, landa-azterketa bat burutu da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko arduradunekin. Bertan, Delphi azterketa bat egin da ikertzeko ea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzen duen gizarte-zerbitzuak antolatzeko garaian.

Berrikuntza Sozial Eraldatzaile hori Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetan aplikatzen den ikusteko, kontuan hartu dira bost azpi-hipotesitan zehaztu diren aldagaiak: gizarte-zerbitzu publikoen antolaketa-eredua, diseinua, probisioa, hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren diskriminazio positiboa eta kooperatibizazioaren aldeko jarrera.

Galdetegia gai teknikoetan baino gehiago gizarte-zerbitzuetako departamentuko arduradunen arrazoi ideologikoetan zentratu da. Hau da, aztertu da ea departamentuko arduradunek, zailtasun tekniko, juridiko eta politikoen gainetik, Berrikuntza Sozial Eraldatzailea aplikatzen duten gizarte-zerbitzuetan.

Nahiz eta proposamenak harrera ona eduki duen, esan daiteke Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko 2014ko arduradunen artean hipotesi horrek zenbait kezka eta zalantza sortu dituela. Alde batetik, Gipuzkoan

gizarte-zerbitzuak antolatzen diren garaian adituen gehiengoa eredu publiko soilaren alde dago, baina betiere, gaur egungo errealitateak abiatuta, atea irekitzen zaio eredu kontzertatuari. Bestalde, Gipuzkoako gizarte-zerbitzu publikoen diseinua antolatzen diren garaian jarrera kontsultiboa atera da garaile. Prozesu hori eman da koeraikuntza eta erabaki partekatua bultzatzen duten guztiek argi ikusten dutelako kasu horretan azken hitzak Administrazioaren eskuetan egon behar duela. Horrekin batera, gizarte-zerbitzuak emateko garaian adituen iritziek zehaztugabetasun handia erakutsi dute. Ez dute jarrera argi bat azaldu kontzertazio, kontratazioa eta hitzarmenaren inguruan. Adituek jarrera argia agertzen dute baita ere, zerbitzu publikoak emateko unean hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideak positiboki diskriminatzearen alde. Bestalde, klausula sozialak begi onez ikusten dituzte. Gainera, adituen gehiengoa hirugarren sektorea/ekonomia sozialeko partaideen artean bereziki kooperatibak diskriminatzearen alde dago. Hala ere, iritziak jasotzeko momentuan errepikatu den ideia bat da kooperatibaren ezaugarri juridikoak ez duela berez bermatzen zerbitzuaren edukia, kalitatea eta izaera demokratikoa. Azkenik, orokorrean gizarte-zerbitzu publikoen kooperatibizazioari buruz iritzi kontrajarriak daude. Nahiz eta gehiengoak hirugarren sektorea/ekonomia sozialaren parte-hartzearekiko lankidetzatza gobernantza bat ez duen privatizazio-prozesu batekin parekatzen, era berean ez da ikusten eredu publikoa zabaltzeko modu egoki bat bezala.